

HISTORIAREN FILOSOFIA 1

Zientziarik baldin badago beste oro (bere perfekzioan salbuespenik gabe) bere barnean konprenitzen duena zientzia hori historia da. Ez da beraz alferrikako lana zientzia horren izaera eta gorabeherak estudiantzea. Eta hori da nire asmoa, zeina aurretik ez baitakit burutu ahal izango dudan pentsatu dudan moduan.

Eta historia da, bere funtsean, gertatutakoaren kontra hutsa. Eta analizatzen baldin badugu definizio hori, hasteko ikasten dugu ezen ezin dela gertatuko denaren kontra, zeren a priori, mundu materialeko historia delarik gure gaia, gai zientifikoa ere, ez baitago jakiterik. Historia da gertatu denaren narrazio sinplea, hutsa, hau da, zientzia horretan ez da ikasitakoaren gainean ezer teorizazio bestelakorik eraikitzen ahal zientzia hortatik alde egiten ez bada behintzat, (eta alde egiten ahal da beste zientzietara, zeintzuek eraikiak dauden historiaren gainean beti) zeren historia baita gertatutakoaren kontra, deskripzioa, eta deskripzioa da zientzia ororen oinarri sendoa eta eztabaidaezina, absurdoan erori nahi ez bada behinik behin. Beraz historia da zientzietan oinarriburua, zeren gertatutakoaren deskripzioa baita, eta hortik soilik hazten ahal da noranahiko teorizaziorik.

Eta deskripzio hutsa den historiak sekula ez du ematen zergatirik, arrazoirik. Eta deskripzioa antolatzen da, garbia delarik,

gertakizunak elkarren ondoan jarriz, izanik juntagailua “eta”. Eta esaten du historialariak: hau gertatu zen, eta gero hori, eta gero hura, eta hola. Deskripzio hutsa, beraz. Deskripzio bat zeinak ez baitu, historiaren zientziatik ateratzen ez denean, sekula arrazoirik ematen. Eta arrazoiak ematea, adibidez, kondizionalak ezartzea baldin bada gure kontraeran, ondo burututako historiak sekula ez ditu kondizionalak ezartzen kontraeran. Pertsonaia historikoeak baditzaizakete baldintzak jarri, jakina, baina historialariak hori kontatu egiten du, beste barik.

Eta historialariak kontatu egiten du hizkuntza erabiliz, berbak, hitzak. Eta hitzak definizioak dira, generoenak, espezie-nak (diferentzia espezifikoak definituak daudenean) eta baita *individoenak* (diferentzia pertsonalak baitaude).

Eta hori ez da egiten ahal soilik bizidunekin, baita mundu materialeko guztiarekin ere, suaren estudioetaraino adibidez, zeinaren azken agerkizuna argia baita, eta asko da aurrerratu dena azken mendeotan suaren estudioetan, jakina denez. Eta hiztegiak aberastu egin dira ikaragarri, aberasten segitzen dute etengabe, behintzat aurrera bagoaz gure zientzietan.

Eta objektuen definizioak edukiz gero jada badaiteke deskribitutakoa formalizatu, hau da, logika formalean badaiteke ipini kontraera bat, deskripzio bat, eta konektorea, historiaren zientzian, “eta” da, hau da juntagailua, konjuntzioa. Eta deskripzio bat badaiteke pasatu errepresentatzera predikatuen logikan kauntifikatzaile esistentzial bezala (partikularra ere deitua da), eta afirma daiteke ezen badagoela kasu bat noiz hau eta hori gertatu den. Hortik historiaren zientziak ez du jauzirik egiten inora. Eta horregatik da zientzietan oinarriburua. Zeren ezinezkoa baita, adibidez, kuantifikatzaile *universal*a sartzea (non urrats hori emateko restriktzio bat errespetatu behar den) ondo formalizatutako gertakizun historiko zehatz batetik, eta beste zientzietan oso usua da errore horretan jaustea teorizatzerakoan. Eta horregatik historia da zientzia bat oinarri oinarrian dagoena.

Guk logikan edozein kontatera historiko formalizatu daitekeela erakutsi dugu, hain zuzen ere, demostratzeko ezinezkoa dela teorizazio hoberik historiak egiten duena baino. Deskripzio hutsa.

Bestelako teorizazioek ez badute kontuan hartzen ezen ezinezkoa dela, materiakoa delarik estudiogaia, *universal* bihurtzerik (kuantifikatzaile *universala* sartzerik) errore handian erori gabe, zeren posible balitz orduan a priori asmatuko bai-kenuke etorkizun dena ere, eta hori denok dakigu ezinezkoa dela kosmos materiala delarik estudiogaia. Historia deskripzio bat da a posteriori egindakoa.

Nonbait ikasia dago ezen objektu matematiko inmutabletan badaitekeela kasu baten estudiotik *universal* bihurtzea. Eta kasu paradigmaticoa da triangeluarena. Eta hori badaiteke predikatuen logikan formalizatu eta estudiatu zergatik den hori. Hain zuzen ere, objektu matematiko inmutableak, immutable izanik, bistan dago, kasu partikular bat edozein kasu da, eta hor jada restriktzioa gainditua dago eta indukzioa perfektua da, eta *universal* bihurtzeko bidea zabalik dago batere objektuorik ezin ipini dakiokela operazio horri. Platonen ideien mundua (formen mundua) objektu inmutableen mundua da, eta hortik abiatzen ahal den zientzia idealista da, ez materiala, zeren materiala balitz kosmos materialean aurkitzen ez dugunez gero inmutabletasunik, zientzia formala (zientzia beti da formala) evoluzionagarria izango litzateke beti, hau da, inperfektua izango litzateke beti.

Baina historia mundu materialaren deskripzioan oinarritzen denez gero ezinezkoa da jada *universal* bihurtzeko restriktzioa gainditi, eta horregatik errore handia da kasu partikular esistentzial bat *universal* bihurtzea, eta hortik edozeinek dakiena ondorioztatzen ahal da, hau da, a priori ez dagoela historia kontatzerik. Aurretik ez dakigula.

Ezin izatea a priori ezagutzeak dakar onartu beharra ez dugula kosmos materialaren ezagutza *universalik*, eta hortik on-

dorioztatzen ahal da egiazki materia misterioa zaigula bere funtsean. Kosmos materiala misterioa dela, ez dugula haren ezagutza esentzialik, haren izaeraren ezagutzarik.

Marcel Maus zientifikoak esana du ezen judizio sintetikoak a priori egiteko ahala jada azतिक bilatzen zutela, zeren ahal hori duenak ahal horrek suposatzen duena dauka, hau da, kosmos materialaren ezagutza *universal*a, eta hortik egin ahal izatea judizio sintetikoak a priori, hortik ezagutzea a priori. Baina inork ez du halakorik sekula aurkitu.

Orientean historiak kontatzen du nola *errevelazio* bat gertatu den, eta hor ikertuz nik aurkitzen dut *errevelazio* hori, hain zuzen ere, ezagutza *universal* horren esistentziaren *errevelazio*a dela, eta erakutsi da badela egiazki seinaleen bitartez, eta seinaleen estudiotik, estudio zientifikotik, badaiteke ondorioztatzen ezen seinale horien ostean izkutatzen zaiguna, *desvelatzen* zaiguna, dela ezagutza *universal* hori, zeina definizioz *privazio-gabea* den, eta *privazioa* baldin bada gaizkiaren kausa orokorra, orduan halako ezagutza *universal*a, guk deduzitua seinaleen estudiotik, misterio santu baten ezagutza bihurtzen zaigu.

Beraz, ez dugu aurkitu ezagutza *universal* hori, seinaleak egiterakoan ez digute argitu nola egiten ahal diren, aurkitu duguna, historialari haiei kreditua emanez gero, jakina, da misterio santu baten esistentziaren ezagutza. Behintzat gure ondorio erlazioak egiazkoak badira.

Baina historia, guk ez dakigunez a priori, halako ezagutzarik ez baitugu aurkitu misterioaz izan ezik, egiten jarraitzen dugu, eta aurrera doa etengabe, eta historialariek deskribatu egiten dute, beste barik, a posteriori historia hori. Teorizazio gehiago egin gabe. Hori ez dagokio historiariaren zientziari.

Roman Garmendia